

LEIOAZTARREN ARTEAN OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEKO MEZU LABURREN I. LEHIAKETARAKO OINARRIAK

Zainduz programak mendekotasunari erantzuna emateko programa da, familia esparruan, gizabanakoaren autonomia sustatzeko ekintzen bidez, boluntarioen bidez eta mendekotasuna duten pertsonen senide zaintzaileei laguntza psikosoziala eskainiz. Udal programa bat da hau, zati batean, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz laguntzen duena, eta bertan, zenbait ekintza, prestazio eta zerbitzu daude sartuta. Programaren ildoetariko bat **autonomiaren sustapena** da. Ildo horretako ekintzen helburua da **ekiditea mendekotasun egoerak agertu edo larriagotzea**, eta **gizabanakoaren autonomia eta bizi baldintza osasungarriak sustatzeko** ekintzak mendekotasuna duten pertsona eta herritar guztiei zuzenduak. Horrez gain, prebentziora bideratuta dauden zerbitzu eta programa psikosozial zehatzak, baita berregokitzezkoak ere, mendekotasuna duten pertsonentzat.

1. LEHIAKETAREN XEDEA:

Gizarte Zerbitzuen sailak "Leioaztarren artean ohitura osasungarriak sustatzeko mezu laburren I. lehiaketa" deitzea planteatzen du, **herritar guztientzat**.

Lehiaketa honen helburua da, **leioaztarren artean, ohitura osasungarriak sustatzea mendekotasuna agertzea ekiditeko eta gizabanakoaren autonomia bultzatzeko**.

Horretarako, leioaztar guztiei proposatzen zaie 2016ko azken hiruhilekoan egingo den lehiaketa honetan parte hartzea. Mezu irabazlea 2017ko Zainduz Leioa programaren publizitatean txertatuko da eta 100 euroko saria jasoko du (25na euroko lau bonutan) lehiaketan parte hartu duten Leioako dendetan gastatzeko.

Lehiaketaren faseak:

- Mezuak gutunazal itxian aurkeztuko dira, oinarri hauekin batera doan inskripzio orriarekin, behar bezala beteta.
- Zuzenean entregatu ahal izango dira Gizarte Zerbitzuetan (Inaurratzaga 1, 48940 –Leioa), edo posta ziurtatuz.
- Mezuak eta inskripzioak 2016ko azaroaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira (*data horren ostean aurkeztutako mezuak zuzenean baztertuko dira*).
- Aurkeztutako mezuak ikusgai jarriko dira, 2016ko azaroaren 28tik abenduaren 31ra, Merkatarien elkartekoak diren eta parte hartzen duten denden erakusleihoetan. Establezimendu bakoitzean, behintzat, mezu bat jarriko da.
- Mezu irabazlea 2016ko abenduaren 12an iragarriko da.
- Irabazleari 2016ko abenduaren 16an emango zaio saria.

2. MEZUAK:

- Mezuek aipatu egin behar dute ohitura osasungarriren bat, fisikoa, kognitiboa, soziala edo emozionala.
- Leioan errolatutako edonork parte hartu ahal izango du.
- Gehienez, 20 hitzez osatuta egongo dira.
- Euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.
- Ezin izango da hizkuntza sexistarik erabili.
- Aipatu ezaugarriak betetzen ez dituzten mezuek ez dute lehiaketan parte hartuko eta ez dira ikusgai jarriko.
- Mezuen erakusketan Leioako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logoak jarriko dira, baita programarena (Zainduz Leioa 2016) eta Leioako Merkatarien Elkartearena ere.

GARRANTZITSUA: Gizarte Zerbitzuen sailak mezu irabazlea erabili ahal izango du edozein jardueratarako eta nahieran, kopiatuz, egokituz eta nahi beste formatu edo euskarritara aplikatuz, egileari baimenik eskatu gabe.

Epaimahaia:

- Mezu irabazle bakarra aukeratuko du epaimahaiak.
- Hauek izango dira epaimahaikideak:
 - Presidentea: Leioako alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.
 - Idazkaria: Gizarte Zerbitzuen Saileko Buruzagitza.
 - Bokalak: lehiaketa antolatzen duen udal sailari lotutako lau pertsona.
- Epaimahaiak hutsik utz dezake saria.
- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

Mezu irabazlea iragartzea: mezu irabazlea Leioako Udalaren web gune eta sare sozialetan iragarriko da.

Saritu gabeko mezuak: aurkeztutako mezuak ikusgai jarriko dira, 2016ko azaroaren 28tik abenduaren 31ra, Merkatarien elkartekoak diren eta parte hartzen duten denden erakusleihoetan. Establezimendu bakoitzean, behintzat, mezu bat jarriko da.

Saria: mezu irabazlea 2017ko Zainduz Leioa programaren publizitatean txertatuko da eta 100 euroko saria jasoko du (25na euroko lau bonutan) lehiaketan parte hartu duten Leioako dendetan gastatzeko.

OHARRAK: lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarriak oso osorik onartzen direla.

INSKRIPZIO ORRIA

IZEN-ABIZENAK:

IDENTIFIKAZIO AGIRIA (NAN, pasaporte...):

HELBIDEA:

PK:

UDALERRIA:

LURRALDE HISTORIKOA:

KONTAKTURAKO TELEFONOA:

JAIOTZE DATA:

POSTA ELEKTRONIKOA: